

## Kanalak

- Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Ordaintzerako garaian internetetik kupoi edo oferta asko eskainiko diegu, horrela bezero gehiago etorriko dira eta gehiago kontsumitu. Baita ere nahiz eta printzipioz ez dugu janaria etxeetara eramango, internetetik web orri bat eukiko dugu eta hor hainbat informazio eskainiko diegu bezeroei (produktuak, prezioak, kokapena...). Gainera, inaugurazio egunean prezioak erdira jaitsiko ditugu. Telefono zenbaki bat eukiko dugu ere, erreserbatzeko eta zalantzak erantzuteko.

Bezeroekin oso irekiak izango gara eta beti irrifar bat aurpegian izango dugu eta lasaitasuna eta alaitasuna transmitituko diegu eskatzerakoan lasaiago egoteko.

Azkenik, hedatzen goazen heinean publizitate gehiago jarriko dugu baina hasieran, gertuko irratietan anuntziatuko gara, baita egunkari batzuetan ere.